

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak itsas-ingurumena zaintzen duten elkarteak eta erakunde espezializatuak izango dira, izan ere, haiek izango dute interes handiena gure proiektuarengan, euren misioa itsas-fauna babestea delako. Horretarako, askotan antolatzen dituzte hondakinak biltzeko jarduerak, kutsadura murrizteko itsasontziak ere erabiltzen dituzte.

Horregatik, gure produktuak egiten duen lana, hondakin kaltegarriak modu eraginkorrean kentzea, euren beharretara guztiz egokitzen da.

Gure marketin-estrategia sare sozialen bidez egingo dugu, gure produktua ezagutarazteko eta pertsona gehiagorengana iristeko. Horrez gain, gure xede-bezeroa sare sozialetan oso aktiboa izan ohi denez, kanal hau egokiena da haiekin konektatzeko eta proiektuaren balioa azaltzeko.

